

Europako erakundeen jarduerak genero-indarkeriaren kontrako borrokan

Emakumeen kontrako indarkeria eragozteko hartu behar diren neurriez daukagun kontzientzia bizirik mantendu behar da azaroaren 25az harago. Horregatik, indarkeria hori prebenitu eta desagerrarazteko asmoz 2021eko azken hilabeteetan Europan hasi diren jarduerarik garrantzitsuenetako batzuk jakinarazi nahi ditu Arartekoak.

1. Indarkeria matxista identifikatzea eta eragozteko eremu digitalean:
Europako Kontseiluan, [Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko Ekintzako Adituen Taldeak gomendio orokor bat](#). Gomendioak eremu digitalean emakumeen kontra gauzatutako hainbat onartu du 2021eko azaroaren 20an, emakumeen aurkako indarkeriaren alderdi digitalaz indarkeria-modu identifikatzen ditu, indarkeria psikologikoa barne dela, eta horiei aurre egiteko neurri batzuk sustatzen ditu. Besteak beste, hezkuntza eta segurtasun digitalak sustatzen ditu maila guztietako hezkuntza-curriculumean, baita ere segurtasun-indarretako, osasun-zerbitzuetako edo justizia administrazioko langileen, epaileen eta magistratuen berariazko prestakuntza. Segurtasun indarrak eta fiskaltzak, bereziki, beharrezko tresnak eta ezagupenak izan behar dituzte bitarteko digitalak erabiliz emakumeen kontra egiten diren indarkeria kasuak ikertu ahal izateko. Bestalde, zerbitzu digitalen enpresek ere lagundu egin behar dute, indarkeria horren zigorgabetasuna errotik kentzeko. Azkenik, gomendioan zenbait neurri agertzen dira emakumeen baliabide ekonomikoak beraien baimenik gabe beste pertsona batzuek kontrola ez ditzaten, esaterako, online bankuaren bitartez.
2. Parlamentuko ekimena, genero-indarkeriaren kontra Europar Batasunerako neurri komunak abiaraz daitezten:

Europar Batasunaren esparruan, aurtengo iraileko Europako Parlamentuaren [ebazpen batek](#) zenbait jarduera agindu zizkion Europako Batzordeari, genero-indarkeriari aurre egiteko:

- Europako protokolo bat sortzea krisi-egoeretako genero-indarkeriaz. Horrek bere baitan hartu behar ditu biktimak babesteko zerbitzuak nahiz oinarrizko zerbitzuak estatu kide guztietan.
- Genero-indarkeria Europaren intereseko delitutzat definitzea. Horrela, zuzentarau bat onartu ahal izango da, genero-indarkeriatzat jotzen diren portaerei buruzko gutxienezko arauak ezarriko dituen, baita horiengatik ezarri ahal izango diren zigorrak ere. Zuzentarau horrek biktimengan jarri beharko luke arreta.
- Genero-indarkeriari buruzko zuzentarau orokor bat idaztea, Europar Batasun osoan ezar daitezten Europako Kontseiluaren Hitzarmenean ([Istanbulgo Hitzarmena](#)) emakumearen kontrako indarkeria prebenitzeko eta horren kontra borrokatzeko agertzen diren arauak; zuzentarau horrek bere baitan hartu behar ditu, besteak beste: prebentzio-neurriak, laguntzeko zerbitzuak eta Batasuneko estatu kideen arteko lankidetzak. Parlamentuak adierazi duenez, oso garrantzitsua izango litzateke Europar Batasuneko herrialde kide guztiek ikuspegi komuna izatea, izan ere, gaur egun, genero-indarkeriari aurre egiteko konpromisoa asko aldatzen da estatu batzuetatik

besteetara. Ikuspegi komunak erraztu egingo luke, gainera, mugaz gaindiko egoeretan legea ezartzea.

- Lanpostu bat izendatzea Europar Batasunean emakumeen kontrako indarkeriaren eta beste genero-indarkeria mota batzuen aurkako koordinazio-lana egiteko.

Europako Batzordea gai horretaz gauzatzen ari den jarduerari buruzko informazioa eskuragarri dago [Batzordearen web orrian](#).

Bestalde, Europan genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen egoera aztertu dute [Oinarrizko Eskubideen Europako Agentziaren inkesta batean](#), [Europako Segurtasun eta Lankidetzarako Erakundearen azterlan batean](#) eta [Genero berdintasunerako Europako Institutuaren lan batzuetan](#).